



Artea, Yasmina Reza

IBON: Dramatikoa da benetan, konpondu ezinezko arazoa: mundu guztiak agertu nahi du ezkontzaren gonbidapen-txartelean. Kattalinek izugarri maite du bere amaordea eta gonbidapen txartelean azaltzea nahi du, horixe nahi duela, eta gainera amaordeak ez du onartzen ez agertzea aitaren ondoan, eta normala da, ama hilda baitago. Nik, berriz, gorroto dut nire aitaren emazte berria eta ez dut haren izena jarri nahi gonbidapen-txartelean. Baina nire aitak ez du agertu nahi bere emaztea agertzen ez bada; prest dago bere izena bakarrik azaltzeko baldin eta Kattalinen amaordearen izenik jartzen ez badugu. Baina hori ezinezkoa da. Orduan, nik proposatu dut senideen izenik ez jartzea, azken batean hogeitaz urte ere ez ditugu, nahikoak gara gu biok gure ezkontzaren berri eman eta jendea gonbidatzeko. Kattalin histeriko jarri da, eta esan du hori sekulako masalekoa dela bere gurasoentzat, urte prezioan ordaindu behar baitute eztei-festa; eta batez ere bere amaordearentzat, bizitza osoan zaindu duelako Kattalin, nahiz ez izan bere alaba. Azkenean amore eman dut, nire borondatearen kontra erabat, neka-neka eginda, onartu dut nire aitaren emazte berria, nazkante hori, gonbidapen-txartelean agertzea. Amari deitu diot kontatzeko. “Ama, gogotik saiatu naiz egoera honetara ez iristeko, baina ez dago beste konponbiderik: Maria Luisa gonbidapen-txartelean agertuko da”. Maria Luisa agertzen bada, nik ez dut azaldu nahi. “Ama, mesedez, ez lardaskatu gehiago gauzak”. Nola ausartzen zara proposamen hori egitera? Zer nahi duzu, nire izena noraezean paperean agertzea, bakar-bakarrik, emakume abandonatua banintz bezala, eta nire izenaren gainean Maria Luisarena eta zure aitarena elkarri estu lotuta? “Ama, lagun batzuk zain dauzkat. Utzi egin behar zaitut; hitz egingo dugu bihar lasaiago”. Eta zergatik izan behar dut nik beti azken tximua? “Baina zer diozu, ama, zu ez zara azken tximua”. Horixe naizela. Gauzak gehiago ez lardaskatzeko esaten didazunean esan nahi duzu dena eginda dagoela, dena erabakita duzuela niri ezer galdetu gabe, nire ezkutuan antolatu duzue dena, Mertxe eraman onekoak men egin behar dio guztiari. Eta, gainera, oraindik ez dut ulertzen zer dela-eta daukazuen halako presa ezkontzeko. “Ama, lagunak zain dauzkat”. Bai, bai, zuk beti daukazu zeregin hoberen bat. Dena ni baino askoz garrantzitsuagoa da. Agur. Eta eskegi egin du.